

Lau jaiotzatik hirutan amak 30 urtetik gorakoak izan ziren

Jaiotakoen erdia baino gehiago lehenengo seme-alabak izan ziren

EUSTATEk egindako Jaiotzen Estatistikako 2005eko lehen hiruhilekoaren datuetan, 4.747 jaio jaso ziren, hots, iazko aldi berean baino %3 gehiago. Lurraldeka, Araban 674 ume jaio ziren, %6,4ko hazkundearekin; Bizkaian 2.468 jaiotzarekin, hazkundea %4,5ean kokatu zen. Gipuzkoan, berriz, zifra mantendu egin zen, 1.605 jaiotzarekin.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2005eko lehen hiruhilekoan, erdiak baino gehiago, 2.718 ume, lehenengo seme-alabak izan ziren; 1.713 haur (%36,1) aurretik beste bat zegoen familetara iritsi ziren; eta hirugarren eta ondorengo seme-alabak %6,7ra iritsi ziren.

Jaiotzak amaren adinaren arabera banatzen baditugu, ikusiko dugu 30-34 urteko amen taldea oraindik ere nagusi dela argi eta garbi, haien artean gertatu baitziren erditzeen ia erdiak. Talde horren ondotik, hurrengo goragoko taldea kokatu zen, hau da, 35-39 urte artekoa (%27,2); 25-29ko taldea beherago geratu zen, erditzeen %17,9 ekarri baitzituen. Muturreko adinak dituzten taldeetan, 25 urtez behera amatu zirenak %5,2 izan ziren, eta 40 urtez gorakoen taldeak, berriz, jaiotzen %4,1 besterik ez zuen ekarri.

Ama ezkongabe gehiago


Ezkontzaz kanpo jaioek guztizkoaren %22,8 hartu zuten, eta bi puntu igo ziren 2004ko lehenengo hiruhilekoaren aldean. Bizkaia (%22) izan zen Euskal AEko kopuru orokorra baino txikiagoa izan zuen lurralde bakarra. Talde horren erditze-adina umeak eduki zituzten amen multzo osoarena baino txikiagoa izan zen, ama ezkongabeen %15,8 25 urtetik beherakoak baitziren.

1. Taula: Bizirik jaioak Euskal AEn. Alderatze-aula

	2005eko 1. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2004ko 4. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2004ko 1. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	4.747	100,0	4.887	100,0	4.607	100,0
Araba	674	14,2	689	14,1	636	13,8
Bizkaia	2.468	52,0	2.517	51,5	2.361	51,2
Gipuzkoa	1.605	33,8	1.681	34,4	1.610	34,9
Amaren adinaren arabera						
< 25 urte	246	5,2	288	5,9	255	5,5
25 - 29 urte	852	17,9	889	18,2	840	18,2
30 - 34 urte	2.160	45,5	2.176	44,5	2.122	46,1
35 - 39 urte	1.292	27,2	1.321	27,0	1.234	26,8
>= 40 urte	197	4,1	213	4,4	156	3,4
Jaiotza-hurrenkera						
Lehenengoa	2.718	57,3	2.841	58,1	2.595	56,3
Bigarrena	1.713	36,1	1.736	35,5	1.732	37,6
Hirugarrena edo gehiago	316	6,7	310	6,3	280	6,1

Iturria: EUSTAT

1. grafikoa: Jaiotzen hilez hileko mugimendua



Iturria: EUSTAT

oinarria 100 = b.b.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martin Gonzalez Hernandez

Tlf:+34-945-01 75 49 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: <http://www.eustat.es>